

## BE VEGGIE! 2024eko zozketen oinarriak

FICOBak, G20816765 IFK duen Gipuzkoako erakustazokak, zozketa hauek antolatu ditu 2024ko ABENDUAREN 6-7-8 egunetan Ficoban egingo den BE VEGGIE 6. edizioan,

BE VEGGIEEn ospatuko diren zozketak:

- Azokako egun bakoitzeko 100 euroko erosketa-txartel 1
- 2 LUSH MARKAKO LOTE.
- Igandea abenduak 8an, jatetxe begano batean gastatzeko 100€-ko balea

Zozketa horiek honako oinarri hauen arabera egingo dira:

1.-Zozketetatik kanpo geratuko dira eta ezingo dira irabazle izan: 18 urtetik beherakoak; erakusketarien langileak; Ficoba Fundazioko langileak; Ficobak azoka egiteko azpikontrataturako enpresetako langileak; eta azoka babesten duten enpresetako langileak. Aurreko kasu guztietatik, ezin izango dira irabazle izan bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko zuzeneko senideak.


Parte hartzetik baztertutako pertsonaren bat irabazle suertatzen bada, saria lortzeko eskubidea galduko du.

2.- zozketetan parte hartzen dutenek eskatutako datu pertsonalak bete beharko dituzte azokako sarrera deskargatzean. BE VEGGIE webgunearen bitartez interesdunek datuak osatu ahal izango dituzte sarrera deskargatu eta zozketan parte hartzeko. Azokara bertaratzen diren erregistroak bakarrik hartuko dira kontuan

3.- Ekitaldian zehar egingo diren zozketak honako hauek izango dira:

3.1. 100 euroko erosketa-txartel 1 zozketatuko da egunero, 12etan eta unean bertan deituko zaio irabazleari. Sari hori ez da ordainduko hemen erabakitakoa ez den beste helburu baterako: standetan parte hartzen duten sinaduren eta marken artikulua erosteko balio ekonomikoa aplikatzea.

BE VEGGIE ospatzen den egunetan zehar kontsumitzeko da saria, hau da, 2024eko abenduak 6-7-8.



Irabazleek antolakuntzako kide bat izango dute ondoan, dirua eramateko, eta nahi beste stand erosi ahal izango dituzte.

3.2. 100 euroko balioa duen erosketa bono bat, jatetxe begano batean gastatzeko; zozketa bidez aukeratuko da. Zozketa abenduaren 8an egingo da, 12:00etan. Saridunari zein jatetxetara joan behar duen jakinaraziko zaio, eta jatetxeari jakinaraziko zaio. Abendua 2024 an xahutzeko bonoa da. Jatetxean, 2024 ko abenduan kontsumitu ondoren, establezimenduak 100 €-ko faktura egingo du (BEZa barne) Ficoba Fundazioaren izenean.

3.3 2 Lush markako lote. Zozketa abenduaren 8an egingo da, 12:00etan. Saridunari zein lote tokatu zaion jakinaraziko zaio. Eta 2024 ko abendu osoa izango du, Ficoban, bere saria jasotzeko.

4.- Zozketa bakoitza, zozketen webgune/app baten bidez egingo da (online), eta hori izango da irabazlearen erabakitzailea. Irabazleen izenak azokako harrera-mahaian jarriko dira, eta antolatzaileek telefonoz deituko diete sariaren berri emateko.

5.- Ficoba Fundazioak ez du bere gain hartuko sariaren zenbatekoarekin erositako produktuei buruz egon daitezkeen erreklamazioen erantzukizuna.

6.- Ficoba Fundazioak sariak jaso dituzten pertsonen datuak, argazkiak eta irudiak argitaratu, eman eta zabaltzeko eskubidea izango du, egoki iritzitako komunikazio eta propagandan, bai berehala, bai etorkizunean.

7.- Ficoba Fundazioak eskumena izango du zozketa horiek garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen erabaki eta aldaketa guztiak hartzeko, bai eta hemen jaso ez diren alderdi guztiak aipatzeko ere. Parte hartzeak berekin dakar oinarri hauetan xedatutakoa onartzea eta horrekin bat etortzea.

8.- Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera. EB 2016/679 eta gure pribatutasun-politikan ([www.ficoba.org](http://www.ficoba.org)), jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Ficoba Fundazioaren fitxategietan sartuko direla, etorkizuneko ekitaldien berri emateko.